2018TGBA0006

**TOKIKO GOBERNU-BATZARRAK 2018KO APIRILAREN 23AN EGINDAKO OHIKO SAIOAREN AKTA.-**

Soraluzeko hirian, bi mila eta hemezortziko apirilaren 23an, hemeretzi orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Saio Aretoan Iñaki Rubio Torrientes eta Nagore Zabala Arrieta Alkateorde jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakaritzapean biltzen dira, lehenengo deialdiz, eta Udaleko Idazkari den Itziar Sagastagoia Zabala andrea idazkari lanetan arituz.

Ez da agertu, etorri ezina adierazita, Patricia Borinaga Albeniz Alkateorde andrea.

**1.- AURREKO SAIOAREN AKTA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.-** Ikusirik, aho batez erabakitzen da 2018ko martxoaren 12an egindako saioaren akta onartzea, Tokiko Gobernu-Batzarreko kide guztiei aurrez kopia bana bidali zaielarik.

**2.- FAKTURAK AZTERTU ETA ONARTU.-** Tokiko Gobernu-Batzarrak aho batez erabakitzen du, 7/2018 zenbakia daraman zerrendarekin doazen faktura guztiak onartzea, 51.120,10 euroko zenbatekoz.

**3.- HIRIGINTZA BAIMENAK.-** Tokiko Gobernu-Batzarrak aho batez erabakitzen du, hurrengo hauei, beraien instantzietan eskatzen duten bezala, hirigintza baimena ematea:

Goki Erreformak, S.L. enpresari, Kalebarreneko 4. zk.an kokatuta dagoen Kontsumo Kooperatiban ate berria jarri, barrualdea berritu eta fatxada zaharberritzeko, udal teknikariak egindako txostenaren arabera eta hurrengo baldintza hauekin:

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EL DÍA 23 DE ABRIL DE 2018.-**

En la villa de Soraluze/Placencia de las Armas, siendo las diecinueve horas del día 23 de abril de 2018, previa convocatoria al efecto, se reúnen en el salón de sesiones de la Casa Consistorial los Sres. Tenientes de Alcalde D. Iñaki Rubio Torrientes y Dña. Nagore Zabala Arrieta, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Iker Aldazabal Basauri, en primera convocatoria y asistiendo como Secretaria, Dña. Itziar Sagastagoia Zabala.

No asiste, habiendo excusado su asistencia, la Teniente de Alcalde Patricia Borinaga Albéniz.

**1.- APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.-** Vista, se acuerda por unanimidad aprobar el acta de la sesión de fecha 12 de marzo de 2018, de la que se ha remitido copia a todos los Sres. miembros de la Junta de Gobierno Local.

**2.- EXAMEN Y APROBACIÓN DE FACTURAS.-** La Junta de Gobierno Local acuerda por unanimidad aprobar todas y cada una de las facturas que se acompañan a la relación nº 7/2018, por importe de 51.120,10 euros.

**3.- LICENCIAS URBANÍSTICAS.-** La Junta de Gobierno Local acuerda por unanimidad conceder licencia urbanística, tal y como lo solicitan en sus respectivas instancias, a los siguientes:

A la empresa Goki Erreformak, S.L., para instalación de puerta nueva, reforma interior y renovación de fachada de la Cooperativa de Consumo ubicada en Kalebarren 4, de conformidad con el informe emitido por el técnico municipal y con las siguientes condiciones:

1.- Lizentzia hau hirugarrenei kalterik egin gabe ematen da, eta jabetza-eskubidetik salbu dago.
2.- Lizentzia hau lan aitortu eta baimenduentzat bakarrik da. Hortik aparteko lanak eginez gero edo baldintzak betetzen ez badira, obrak berehala geldituko dira eta dagozkion administrazio zigorrak ezarriko.

3.- Urriaren 24ko 1.627/1997 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera, kontratistak burutu beharreko lanei dagokien segurtasun plana edo arriskuen ebaluazioa berariaz idatzi beharko du, eta lantoki berriaren zabalpena jakinarazi beharko dio eskumena daukan lan-agintaritzari. Lanetan **enpresa batek baino gehiagok** parte hartuko balu (kontratista edota azpikontratista), obrako **segurtasun-koordinatzaile** bat izendatu beharko da nahitaez.
4.- Euskal Autonomi Erkidegoan **eraikuntza- eta eraispen-hondakinen** ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren arabera, honako hauek bete behar dira:

a) Obra baimenaren titularrak, edo, hala dagokionean, kontratistak, jatorrian bertan bereizi behar dituzte obra txikietan sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinak, harrizko hondakinak, hondakin arriskutsuak eta hondakin ez-arriskutsuak bereiziz, gutxienez.
b) Kontratistak behar bezala bereiziko ditu obrako hondakinok, eta, ondoren, garraiatu eta behar den tokian utziko ditu, haiek sortu diren tokitik hurbilen dagoen **garbigunean**.
c) Lanak amaitzean, obra baimenaren titularrak **eraikuntza- eta eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak** aurkeztu behar dizkio Udalari.
5.- Obra baimenaren titularrak zein kontratista obragileak, lanak egiteko edota obra-hondakinak jasotzeko edukinontzi edo kontenedorea edota aldamioa jartzeko bide publikoa okupatu beharra balu, baimena eskatu beharko dio udaltzaingoari, obrak egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztuz eta okupatuko den bide publikoaren

1.- Esta licencia se otorga sin perjuicio de terceros y a salvo del derecho de propiedad.
2.- La presente licencia ampara sólo trabajos declarados y autorizados. Cualquier extralimitación en los mismos o incumplimiento de las condiciones de la licencia determinaría la inmediata paralización de las obras y la imposición de las sanciones administrativas pertinentes.
3.- Según establece el Real Decreto 1.627/1997, de 24 de octubre, el contratista, deberá redactar el plan de seguridad o la evaluación de riesgos específica de los trabajos que se van a realizar y deberá efectuar un aviso previo a la autoridad laboral competente de la apertura del nuevo centro de trabajo. Si en la obra concurre **más de una empresa** (contratista y/o subcontratista), deberá designarse obligatoriamente un **coordinador de seguridad** en la obra.
4.- Conforme al Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los **residuos de construcción y demolición** en el País Vasco, se deberán cumplir con las siguientes obligaciones:
a) El titular de la licencia, o el contratista en su caso, deberá efectuar la separación en origen de los residuos de construcción y demolición procedentes de obra menor contemplando, como mínimo, residuos pétreos, residuos peligrosos y residuos no peligrosos:
b) El contratista deberá transportar y depositar los residuos de las obras, correctamente seleccionados, en el **punto limpio** más cercano al del domicilio de generación de los residuos.
c) Al finalizar los trabajos, el titular de la licencia deberá presentar ante el Ayuntamiento **documentación acreditativa de la correcta gestión de los residuos de construcción y demolición**.
5.- Caso de que el titular de esta licencia o el contratista ejecutante de las obras necesitaran de la ocupación de la vía pública para realizar los trabajos, para la instalación de contenedor y/o andamio, será necesario solicitar autorización a la Policía Municipal, presentando copia de la licencia urbanística concedida, con indicación de la superficie de la vía

azalera zehaztuz.

6.- Bide publikoan egingo diren lanak behar bezala seinaleztatuta eta babes-hesiz itxita egongo dira eta toki horretara obrako langileak baino ezin izango dira sartu. Obrek iraun bitartean, ingurua erabat garbi eduki beharko da. Obrak amaitu eta gero, udal teknikariek ikuskatuko dituzte.

7.- Lanek zirkulazio-bideei eragiten dietenean, ibilgailuen trafikoari zuzenduriko seinalizazio elementuak jarri beharko dira ezinbestean.

8.- Aldamioak kalean jartzerakoan, habetzan egokiak, oinarri-plakak eta nibelazio-tresnak erabili behar dira, sistemaren egonkortasuna bermatzeko uneoro.

9.- Aldamio azpitik oinezkoentzako pasagune bat utzi beharko da, gutxienez 1,50 m-ko zabalera eta 2,10 m-ko altuera dituen korridore bat utziz.

10.- Markesina babesgarriak jarriko dira aldamio guztietan, oinezkoen gainean ezer eror ez dadin. Espaloitik 3 m-ra jarriko dira gutxienez. Markesinaren gainean, ezin izango da makinarik jarri ez eta materialik zein lanabesik pilatu ere.

11.- Tutu moduko aldamio osoa, irekiunerik ez duen sare bidez babestuta egongo da, kalera material edo tresnarik eror ez dadin. Aldamioaren lan plataformen gainean, ezin izango da ez materialik ez erreminta astunik metatu. Plataforma hauek 15 cm-ko alturako zokaloa eramango dute, esku-barandak 90 cm-ko gutxieneko alturara eta bitartean beste baranda bat. Eta plataformaren gutxieneko zabalera 60 cm-koa izango da. Aldamiora eskailera bidez helduko da.

12.- Amarradura bakoitzeko 12 m² onartuko dira, gehienez. Amarradurak uniformeki jarriko dira fatxadaren gainean, proiektuko planoetan zehaztutako kokalekuetan. Bestelako kalkuluak berariaz egiaztatzen direnean izan ezik, amarradura batek, gehienez ere, 300 kg-ko zama jasaten duela joko da.

pública a ocupar.

6.- Las obras en la vía pública deberán estar perfectamente señalizadas y cerradas, de tal forma que sólo puedan acceder a la zona de obras los operarios de la misma. Deberán permanecer durante las obras los aledaños completamente limpios. Una vez terminadas las mismas serán supervisadas por los técnicos municipales.

7.- Cuando se afecte a viales rodados, será obligatoria la instalación de un mínimo de elementos de señalización para el tráfico de vehículos.

8.- Los andamios deberán apoyarse en la vía pública utilizando durmientes adecuados, placas base y husillos de nivelación, con el fin de garantizarse en todo momento la estabilidad del sistema.

9.- Se habilitará el paso peatonal por debajo del andamio quedando siempre un pasillo de 1,50 m. de anchura por 2,10 m. de altura de dimensiones libres mínimas.

10.- Se instalarán marquesinas de protección para evitar riesgos de caídas de objetos sobre los viandantes a una altura mínima de 3 m. sobre la acera. No se permitirá la colocación de maquinaria ni la acumulación de materiales o herramientas sobre la marquesina.

11.- Toda la superficie del andamio tubular estará protegida por un sistema de redes carente de aberturas para evitar la caída de materiales o herramientas a la vía pública. No se permitirá la acumulación de materiales ni herramientas pesadas sobre las plataformas de trabajo del andamio. Se dispondrán rodapiés de 15 cm de altura, barandilla intermedia y barandillas con altura mínima de 90 cm. La anchura mínima de la plataforma será de 60 cm. Todo acceso al andamio se realizará por medio de escaleras.

12.- El número máximo de m² por amarre será de 12 m². Los amarres estarán dispuestos uniformemente sobre la fachada previéndose su situación en los planos del proyecto. Salvo justificación de cálculo expresa se considera que un amarre no soporta una carga mayor de 300 Kg.

13.- Egitura hauek, prestakuntza berezia duten eta trebatuta dauden langileek muntatuko dituzte, beti ere, jarduera hauen arriskuak ezagutzen badituzte.
14.- Aldi bateko altuerako lanen esparruan, langileek lan-ekipoak erabiltzeko zaindu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen dituen uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretua aldatzen duen azaroaren 12ko 2177/2004 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko da uneoro.

15.- **Aldamioa muntatzen hasi aurretik, aldamioaren homologazio-ziurtagiria eta gailuaren gida-liburua** aurkeztu beharko dira Udaletxean.

13.- El montaje de estas estructuras será encomendado a personal especialmente formado y adiestrado que conocerá los riesgos inherentes a dichas actuaciones.
14.- Se cumplirá en todo momento con lo establecido en el Real Decreto 2177/2004, de 12 de noviembre, por el que se modifica el Real Decreto 1215/1997, de 18 de julio, por el que se establecen las disposiciones mínimas de seguridad y salud para la utilización por los trabajadores de los equipos de trabajo, en materia de trabajos temporales en altura.
15.- Se deberá presentar en el Ayuntamiento, **antes del inicio del montaje del andamio**, el **Certificado de Homologación del andamio** y el **Manual del Producto.**

**4.- IDAZKI ETA JAKINARAZPENAK.-** Tokiko Gobernu-Batzarra, hurrengo idazki eta jakinarazpenez jakitun geratzen da eta ondorengo erabaki hauek hartzen ditu aho batez:

a) Kirolen eta Kiroldegiaren Zerbitzuak proposatuta:
1.- Soraluzeko Kirol Bazkuneko Pilota Sailari **192** euro ordaintzea, apirilean egindako lanagatik.

2.- Ondorengo kirol begiraleei jarraian zehazten diren kopuruak ordaintzea, apirilean egindako lanagatik eskola kirolaren baitan:

-Alana Berraondo Sebali: **156** euro.
-Mikel Sánchez Karasatorreri: **252** euro.
-Andoni Mugika Arrizabalagari: **30** euro.
-Leire Lasa Olabarriari: **158** euro.

3.- Ukaldi judo klubari (Juan Ramón del Barrio Molinero) **120** euro ordaintzea, judoko 3. hiruhilabeteko klaseengatik.

4.- Eibarko Rugby Taldeari **200** euro ordaintzea, martxoan eta apirilean multikirolerako eman dituen klaseengatik.

**4.- ESCRITOS Y COMUNICACIONES.-** La Junta de Gobierno Local muestra quedar enterada de los siguientes escritos y comunicaciones y adopta por unanimidad los acuerdos que seguidamente se dirán:

a) A propuesta del Servicio de Deportes y Polideportivo:
1.- Abonar a la sección de pelota de la S.D.P. la cantidad de **192** euros, por la labor realizada durante el mes de abril.

2.- Abonar a los siguientes monitores deportivos las cantidades que a continuación se detallan, por la labor realizada para el deporte escolar durante el mes de abril:
-A Alana Berraondo Sebal: **156** euros.
-A Mikel Sánchez Karasatorre: **252** euros.
-A Andoni Mugika Arrizabalaga: **30** euros.
-A Leire Lasa Olabarria: **158** euros.

3.- Abonar al Club de Judo Ukaldi (Juan Ramón del Barrio Molinero) la cantidad de **120** euros por las clases del tercer trimestre.

4.- Abonar a Eibar Rugby Taldea la cantidad de **200** euros, por las clases dadas en marzo y abril para el multideporte.

b) Osasun, Gizarte Ongizate eta Inmigrazioaren Batzordeak proposatuta:
1.- 2018ko apirilari dagozkion gizarte larrialdietarako laguntzak ematea, etxebizitza alokairuaren eta hornidura ezberdinen ordainketei aurre egiteko, 3.684,84 euroko zenbatekoz.

2.- Jaime Aristi Artolazabal jaunari etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea, aipatu zerbitzua eskatzeko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ostean.

3.- Emilia Altuna Egia andreari etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea, aipatu zerbitzua eskatzeko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ostean.

4.- Dolores Ordax Prieto andreari etxez etxeko laguntza zerbitzua ematea, aipatu zerbitzua eskatzeko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ostean.

c) Ahultasun ekonomikoa eta bazterketa sozialerako arrisku egoeran dauden familientzako laguntza ekonomikoen programarekin bat etorriz, Elena Plazaola Arana andreari **60,60** euroko laguntza ekonomikoa ematea, 2018ko martxoari dagokiona.

d) Ahultasun ekonomikoa eta bazterketa sozialerako arrisku egoeran dauden familientzako laguntza ekonomikoen programarekin bat etorriz, Arantxa Plazaola Etxaniz andreari **70** euroko laguntza ekonomikoa ematea, 2018ko otsailari dagokiona.

e) Ahultasun ekonomikoa eta bazterketa sozialerako arrisku egoeran dauden familientzako laguntza ekonomikoen programarekin bat etorriz, Arantxa Plazaola Etxaniz andreari **70** euroko laguntza ekonomikoa ematea, 2018ko martxoari dagokiona.

f) Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioa Departamentuko Diputatuak, 2018ko

b) A propuesta de la Comisión de Sanidad, Bienestar Social e Inmigración:
1.- Conceder las ayudas de emergencia social, correspondientes al mes de abril de 2018, para hacer frente al pago del alquiler de la vivienda y de los distintos suministros, por importe de 3.684,84 euros.

2.- Conceder a D. Jaime Aristi Artolazabal el servicio de ayuda a domicilio, tras comprobar que reúne los requisitos exigidos para solicitar dicho servicio.

3.- Conceder a Dña. Emilia Altuna Egia el servicio de ayuda a domicilio, tras comprobar que reúne los requisitos exigidos para solicitar dicho servicio.

4.- Conceder a Dña. Dolores Ordax Prieto el servicio de ayuda a domicilio, tras comprobar que reúne los requisitos exigidos para solicitar dicho servicio.

c) De conformidad con el programa de ayudas económicas destinadas a familias en situación de vulnerabilidad económica y riesgo de exclusión social, conceder a Dña. Elena Plazaola Arana una ayuda económica por importe de **60,60** euros, correspondiente al mes de marzo de 2018.

d) De conformidad con el programa de ayudas económicas destinadas a familias en situación de vulnerabilidad económica y riesgo de exclusión social, conceder a Dña. Arantxa Plazaola Etxaniz una ayuda económica por importe de **70** euros, correspondiente al mes de febrero de 2018.

e) De conformidad con el programa de ayudas económicas destinadas a familias en situación de vulnerabilidad económica y riesgo de exclusión social, conceder a Dña. Arantxa Plazaola Etxaniz una ayuda económica por importe de **70** euros, correspondiente al mes de marzo de 2018.

f) Mediante Orden Foral del Diputado del Departamento de Gobernanza y Comunicación con la

martxoaren 15eko Foru Aginduaren bitartez, IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., I.F.Z. A95758389 enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektrikoaren hornidura kontratatzeko esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Soraluzeko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikita dagoen erakundea den aldetik, eta zerbitzua interesatzen zaion neurrian, otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikuluaren arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa sinatu ondoren, idazkariak, 2018ko apirilaren 23ko datan emandako txostenaren arabera, proposatu du, Udal honek behar duen energia elektrikoaren hornidura emateko kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Administrazio honek kontratatzea beharko duen energia elektrikoaren hornidura zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 100.881,40 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. (I.F.Z A95758389) enpresari esleitzea, sinatutako esparru akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, **ERABAKITZEN DU:**

**LEHENENGOA.-** IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. (I.F.Z A95758389) enpresari esleitzea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektrikoaren hornidura kontratatzeko esparru akordiotik"

Sociedad de 15 de marzo de 2018, se resolvió concluir con IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., N.I.F. A95758389, el expediente "Acuerdo Marco para la contratación del suministro de energía eléctrica a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa".

Corresponde al Ayuntamiento de Soraluze en tanto ente adherido al presente expediente tramitado por la Central de Contratación Foral, de conformidad con el art. 6 del Decreto Foral 3/2011, de 22 de febrero, la adjudicación, formalización y autorizacion del gasto correspondiente al contrato derivado del Acuerdo Marco, del que interesa esta administración.

Una vez perfeccionado el Acuerdo Marco, la secretaria, en informe de 23 de abril de 2018, propone adjudicar y formalizar el contrato del suministro de energía eléctrica para atender las necesidades del Ayuntamiento con la mercantil con la que se concluyó el acuerdo marco.

La demanda previsible del suministro de energía eléctrica a contratar por parte de esta Administración, hace estimar un gasto aproximado anual de 100.881,40 euros, IVA excluido.

Por ello, y de conformidad con lo dispuesto en el art.198 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, procede en estos momentos adjudicar el contrato derivado a la empresa IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., N.I.F. A95758389, con arreglo a los términos establecidos en la conclusión del acuerdo marco.

En su virtud, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad **ACUERDA:**

**PRIMERO.-** Adjudicar el contrato derivado del "Acuerdo marco para el suministro de energía eléctrica a través de la Central de Contratación Foral" a la empresa IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., N.I.F.

eratorritako kontratu eratorria, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

**BIGARRENA.-** 100.881,40 euroko gastua, BEZik gabe, IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. (I.F.Z A95758389) enpresaren alde baimentzea eta xedatzea, aurtengo ekitaldiari dagozkion 155, 147, 439,135, 139, 143, 144, 148, 152 eta 398 kodedun kontusailen kargura.

**HIRUGARRENA.-** Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

**5.- <u>ESKARI ETA GALDERAK.-</u>** Ez zen ez eskaririk eta ez galderarik egin.

Eta beste gairik ezean eta hemeretzi orduak eta hamabost minutu direnean, Lehendakaritzaren aginduz saioa bukatutzat ematen da, hori guztia Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

A95758389, en los términos establecidos en la conclusión del propio acuerdo marco.

**SEGUNDO.-** Autorizar y disponer el gasto imputable al presente ejercicio que asciende a la cantidad de 100.881,40 euros, s/IVA, en favor de IBERDROLA CLIENTES, S.A.U., N.I.F. A95758389, con cargo a las partidas presupuestarias cuyos códigos son: 155, 147, 439,135, 139, 143, 144, 148, 152 y 398.

**TERCERO.-** Formalizar el contrato con la empresa adjudicataria.

**5.- <u>RUEGOS Y PREGUNTAS.-</u>** No se efectuó ningún ruego ni pregunta.

Y no habiendo más asuntos de qué tratar y siendo las diecinueve horas y quince minutos, de orden de la Presidencia se levanta la sesión, de todo lo cual, como Secretaria, certifico.